

EUSKARA ARLOKO PROGRAMAZIO LABURRA

Irakaslea	Belen Apezetxea Larraintzar Dabid Dominguez Gonzalo Irene Herbosa de la Iglesia Amparo Ibarra ;urillo	Maila	LB2	Ikasturtea	2020-2021
-----------	--	-------	-----	------------	-----------

IKASGAIAREN EZAUGARRIAK MAILA HONETAN

Batxilergoko bigarren ikasturte honetan aurreko mailetako ezagueretan sakontzen da. Gramatikaren erabilera zuzena lortzeaz gain, testu iruzkinetan nahiz ekoizpenean trebetasuna eskatzen da. Lau orduko irakasgaia da.

Covid19 dela eta bizi dugun egoera aldakor honetan, Hezkuntza Departamentuak lan egiteko lau egoera ezberdin antzeman ditu. Lauak [Kontingentzia Plana](#) izena daraman dokumentuan azaltzen dira.

Lehenengo bi egoeretan, aurrez aurreko irakaskuntza bermatuko da.

Hirugarren egoeran, erdiz aurrez aurreko irakaskuntza bermatuko da.

Laugarren egoera, aurrez aurreko irakaskuntza ez da egongo, eta etxetik lan egin beharko da.

Lehenengo bi egoerak gure ikasgaiari dagokionez, ez du desberdintasunik eta eskutan duzun testu honen arabera lan egingo dugu.

Hirugarren zein laugarren egoeretan sartzen bagara, abian jarriko da ikastetxeko [Arreta ez-Prezentzialaren Plana](#).

OINARRIZKO GAITASUNAK UNITATEAK (ikus denboralizazioa-9 unitate)

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1) Hizkuntza komunikazioa.	x	x	x	x	x	x	x	x	x	x
2) Matematika gaitasuna eta zientzia eta teknologiako oinarritzko gaitasunak.										
3) Gaitasun digitala.		x	x		x	x		x	x	
4) Ikasten ikastea	x	x	x	x	x	x	x	x	x	
5) Gaitasun sozial eta zibikoak.		x	x		x	x		x		
6) Ekimena eta ekintzailtza.									x	
7) Kontzientzia eta adierazpen kulturalak.									x	

ETAPAKO HELBURU OROKORRAK

Ikus honako lotura honetan: <https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2015/127/1>

EDUKIAK

[LB EUSKARA CURRICULUMA \(azken lau orrialdeak\)](#)

https://drive.google.com/file/d/0B56WxCdN_XfWS1M1empYNzV2dm8/view?usp=sharing

1.- Hizkuntzaren ezagutza: Hizkuntzaren ikaskuntzari buruzko gogoeta.

1.1. Deklinabidea: kasuak eta numeroak.

1.2. Izenordainak.

1.3. Hitzak eratzeko prozedurak aztertzea eta azaltzea. Elkarketa eta eratorpena. Lexikoaren zabalkuntza.

1.4. Aditza: molde jokatuak eta jokatu gabeak; perifrastikoak eta trinkoak; aspektua, denbora, pertsonak eta modua; alokutiboaren erabilera.

- 1.5. Egitura sintaktiko konplexuen (koordinatuen eta mendekoen) gaineko behaketa, gogoeta eta azalpena. Testuetako lotura logikoak eta semantikoak. Berridazketak.
- 1.6. Esaldiko elementuen ordena: galdegaia edo errema eta mintzagaia.
- 1.7. Hiztegia eta egitura linguistikoak berrikusteko, zabaltzeko eta finkatzeko estrategiak: sinonimoak.
- 1.8. Euskalkien ezagutza.

2.- Idatzizko komunikazioa: irakurtzea, ulertzea eta idaztea.

- 2.1 Kazetaritza esparruan berezkoak diren azalpen eta argudiozko testuetan igorlearen asmoa: asmoa.
- 2.2 Kazetaritza esparruan berezkoak diren azalpen eta argudiozko testuetan edukiaren laburpena, ideia nagusiaren adierazpena: laburpena/gaia eta ideia nagusiak/tesia eta argudioak.
- 2.3 Testuko informazioaren ulermena eta interpretazioa. Datuak ondorioztatu eta inferitu: ulermen zehatza.
- 2.4 Kazetaritza esparruan berezkoak diren azalpen eta argudiozko testuak antolatzeko modu desberdinen gaineko behaketa. Azalpen eta argudio testuen barne antolamendua: testuaren egitura.
- 2.5 Kazetaritza esparruan berezkoak diren azalpen eta argudiozko testuek dituzten bereizgarriak: testu tipoa antzeman hiru ezaugarriak emanez.
- 2.6 Kazetaritza generoen berezko ezaugarriak: testu mota antzeman hiru ezaugarri emanez
- 2.7 Pertsona deiktikoak: antzeman eta erabileraren zergatia eman.
- 2.8 Objektibotasuna eta subjektibotasuna markatzen duten adierazpen baliabideak antzeman eta erabileraren zergatia azaldu.
- 2.9 Azalpen edo argudiozko testuak zehatz, argi eta zuzen idaztea, argudio zuzen eta sendoak erabiliz, eta komunikazio asmoaren eta komunikazio egoeraren gainerako baldintzen arabera doituz adierazpena: balorazio kritikoa.
- 2.10 Skolae: Genero ikuspuntua lantzeko aukera ematen duten kazetaritza esparruko testu aukeratu batzuetan oinarrituz, ahozko zein idatzizko balorazioak egin. Honen harira, *Sexu aniztasunaren aberastasuna* jarduera ere landuko dugu. Harreman toxikoak lantzeko jarduera: Indarkeria istorioak; kasu batzuk aztertuta, gomendioetara iritsi.

3.- Hekuntza Literarioa: XX. mendetik gaur egunera bitarteko literaturako gai, obra edo egileei buruzko lan akademiko idatziak edo aurkezpenak planifikatzea eta prestatzea. Lanen interpretazio kritikoa.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK eta ESTANDAR EBALUAGARRIAK

[LB2 CURRICULUMA \(azken lau orrialdeak\)](#)

https://drive.google.com/file/d/0B56WxCdN_XfWS1M1empYNzV2dm8/view?usp=sharing

UNITATEAK ETA DENBORALIZAZIOA

1. Ebaluazioa		2. Ebaluazioa		3. Ebaluazioa	
Orduak	Unitateak	Orduak	Unitateak	Orduak	Unitateak
22	1-Deklinabidea, aditz laguntzailea eta sinonimia (euskalkiak oinarri).	20	4-Aditz trinkoa eta sinonimia. Perpau motak: Koordinatuak eta mendekoak.	15	7-Perpau motak: Mendekoak. Hitz eratorriak Galdegaia eta mintzagaia. Aurreko atalak.
10	2-Asmoa, objektibotasun eta subjektibotasun probak. Laburpena, gaia eta ideia nagusiak. 3-Ulermen zehatza.	14	5-Egitura. Tesia eta argudioak. 6-Balorazio kritikoa.	19	8-Testu tipo eta testu mota: testu tipologia (azalpen eta argudio testuak), kazetaritzako generoak. Aurreko atal guztiak.

2	9-XX. mendetik gaur egunera bitarteko literaturako gai, obra edo egileak.	4	9-XX. mendetik gaur egunera bitarteko literaturako gai, obra edo egileak.		
---	---	---	---	--	--

METODOLOGIA ETA BALIABIDEAK

Departamentuan sortutako apunteak erabiliko ditugu. Azalpenak jaso ondoren etengabeko praktikan datza gure metodologia. Bakarkako lanak zein talde txikikoak ere burutuko dira; taldekako lan hauetako batzuetan IK/KI egiturak erabiliko dira. Erreferentzia beti testua izanen da; hori da gure euskarria. Jorratuko ditugun testu horien aukeraketan generoen arteko berdintasunaren ikuspegia kontuan hartuko da, landuko den alderdi garrantzitsua izango baita.

EBALUAZIOA ETA ERREKUPERAZIOA

Ebaluazio bakoitzak % jakin baten balioa du. Errekuperazio sistemak ebaluazio bakoitzeko berreskurapena aurreikusten du.

KALIFIKAZIO SISTEMA eta TRESNAK edo BALIABIDEAK

- 1.-Azterketa zein lan guztietan zuzentasun gramatikala ezinbestekoa izanen da, oinarrizko ezagueretan (ergatiboa, aditzaren komuntadura eta ortografia) huts bakoitzeko 0.1 kenduko zaielarik.
- 2.-Etengabeko ebaluazio dugunez, hiruhileko bakoitzeko azterketak aurrekoetan emandako gaiak ere bilduko lituzke. Lehenbiziko ebaluaketak %20 balioko du, bigarrenak %35 eta hirugarrenak %45.
- 3.- Ehunekoak aplikatu ondoren 5 baino gutxiago aterako duenak nahikotasuna egin beharko du. Etengabeko ebaluazioa galduz gero ere, ikasleek nahikotasun proba egingen dute, zeinetan gaitegi guztia sartuko den.
4. -Erabiliko ditugun tresnen balioa honako hau izanen dugu:

Lehenengo ebaluazioa	Bigarren ebaluazioa	Hirugarren ebaluazioa
<ul style="list-style-type: none"> • Azterketak %80 • Idazlanak %20 	<ul style="list-style-type: none"> • Azterketak %70 • Idazlanak %30 	<ul style="list-style-type: none"> • Azterketak %60 • Idazlanak %30 • Literatura %10

ZUZENKETA IRIZPIDEAK ETA GUTXIENEOAK

Borobiltzea: Ebaluazioko nota jartzeko, borobiltze matematiko arrunta erabiliko da:

- Lehen hamartarra 1, 2, 3 edo 4 bada: unitatea bere horretan mantentzen da.
- Lehen hamartarra 5, 6, 7, 8 edo 9 bada: unitateari 1 gehitzen zaio. Arau hau ez da aplikatuko 4,5-5 tartean, hau da, gainditzeko baldintza 5era iristea da.

Ikasturte bukaerako nota kalkulatzeko, ebaluazio bakoitzeko borobildu gabeko notarekin kalkulatu da, eta ondoren aurreko borobiltze irizpidea erabiliko da.

ERREKUPERAZIO SISTEMA

Ikasleak ebaluazioa gaindituko ez balu, berreskurapen azterketa egingo luke horretarako aurreikusten diren egunetan.

Hiru ebaluazioen ehunekoak aplikatu ondoren, 5 baino gutxiago aterako duenak nahikotasuna egin beharko du. Proba horretan 5koa lortuz gero, kurtsoa gaindituzat joko dugu. 5 baino nota altuagoa lortuz gero, nota horrek 3. ebaluaziokoa ordezkatuko luke eta berriz ere kurtso osorako proposatuak ditugun ehunekoak aplikatuko genituzke azken nota ateratzeko. Etengabeko ebaluazioa galduz gero ere, ikasleek nahikotasun proba egingen dute, legeak arautzen dituen estandarren arabera prestatuko dena.

Ohiko deialdian gainditu ezean, ekainaren erdialdean ezohiko azterketa egingo dute. Estandarren arabera prestatuko da eta notaren %100a izanen da.

Aurreko ikasturteko Euskal Hizkuntza eta Literatura irakasgaia gainditu gabe izanez gero, irailean beste proba idatzi bat egiteko aukera egonen da. Horrela gainditu ezean, bigarren mailako lehenbiziko eta bigarren ebaluazioetan gutxienez 4koa lortu beharko da gaindituzat emateko. Hala ez balitz, apirilean beste proba idatzia gainditu beharko da.

KANPOKO EBALUAZIOA

Ekainean izanen den USE azterketarako prestatzen da ikasturte osoan zehar. Egiten diren proben ereduak azterketa horretan jartzen denarekin bat egiten du.